

Gernika Gogoratuzen lana aitortu du Elxeko Udalak



Gernika-Lumo

Gizartea

Gernikak kontziliazioaren bidez "bakearen sinbolo bihurtzen jakin" duela azpimarratu du Elxeko Udalak. Maria Oianguren Gernika Gogoratuzeko zuzendariak gizarte demokratikoetan bizikidetzak bakesua indartzen laguntzeko asmoa nabarmendu zuen.

Agenda						
Abendua 2022						
AL.	AR.	AZ.	OG.	OL.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	



2022/12/21

Ane Maruri Aransolo

Elxeko Udalak antolatu duten seigarren **Giza Eskubideen Galan** bakea oinarritzko giza eskubide modura aldarrikatzeaz gain, **Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroaren lana** aitortu du; Amnistia Internazionalaren, Scout mugimenduaren eta Valentziako Nazioarteko Elkartasunaren lana ere balioan jarri du udalak.

Aurtengo gala Ukrainako gerraren eta munduko beste leku batzuetan dauden beste gatazka beliko batzuen ondoriozko bakeari buruzkoa izan da, eta Gernikak kontziliazioaren bidez "bakearen sinbolo bihurtzen jakin" duela azpimarratu dute.

Visit Gernika kanpainaren baitan egin dute **giza eskubideen aldarrikapen unibertsala** ospatzen duen ekitaldia aurtun, eta, bertan, 1937ko bonbardaketaren izugarrikeriari eta haren ondorioei buruz hausnartu zuten. Gernikako biztanleen ausardiak ere berba egin zuten, "adiskidetzan eta bakearen kulturaren oinarritutako etorkizuna eraiki dutelako".

Ekitaldian parte hartu zuen Maria Oianguren Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroko zuzendariak, eta Elxeko Udalarri eskerrak emateaz gain, belaunaldien arteko elkarrizketa bultzatzen jarraitzeko eta gizarte demokratikoetan bizikidetzak bakesua indartzen laguntzeko asmoa nabarmendu zuen.

Mariola Galiana Elxeko udaleko Garapenerako Lankidetzako zinegotziak Gernikako bonbardaketa gogorarazi eta bakerako eta kontziliaziorako eskubidea aldarrikatu zuen: "Giza eskubideen nazioarteko 1948ko abenduaren 10eko Parisko itunak jasotzen dituen printzipioen urraketa izugarriak oraindik ere gertatzen dira. Hori dela eta, indar handiagorik behar dugu bertan jasotako eskubideen indarra eta defentsa". Bakearen kultura eraikitzeko lanean jarraitzeko deia egin zuen, baita oinarritzko eskubideak "defendatuko eta sendotuko" dituen gizarte bat lortzeko deia egin ere.

Busturialdeko **albisteak euskaraz, libre eta kalitatez** jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa dugu. **Egin zaitez HITZAKIDE!** Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin **HITZAKIDE**



Busturialdeko azken berrien buletina!

Buletina hileko azken barikuetan bidaltzen da, eta Busturialdeko hilabeteko berri nagusiak biltzen ditu.

Izen-abizenak *

Posta elektronikoa *

Pribatutasun Politika irakurri eta onartzen dut.

Harpidetu

94-627 10 85 / 607 29 22 23

busturialdea@hitza.eus / gernika@hitza.eus

Elbira Iturri kalea, z/g. 48300, Gernika-Lumo

Nor gara



94-618 72 99 / 647 35 56 54

busturialdea@hitza.eus / bermeo@hitza.eus

Atalde 17, atzealdea. 48370, Bermeo

[Argitalpen politika](#)

[Aniztasun politika](#)

[Pribatutasun politika](#)

[Cookieak](#)

Babesleak:

